

## “Dena ez da birziklatzea, beharrezkoa da gogoeta egitea, heztea eta aldarrikatzea ere”



Asunción  
Ruiz

SEO/BirdLife  
erakundeko  
zuzendaria

Kontsumitzaile gisa, birziklatzea da ingurumenaren aldeko jarrera eta kontzientzia erakusteko modurik onenetakoa. Halaxe dio Asuncion Ruizek, SEO/BirdLife erakundeko zuzendariak (Espainian ibilbiderik luzeena egin duen GKEa da). Bere ustez, beharrezkoa da gehiago eta hobeto birziklatzea, hori da bidea gure inguruan eragiten dugun kaltea murrizteko eta Europak ezarri dituen helburuak betetzeko, zeinak gero eta zorrotzagoak baitira. Horrexegatik gomendatzen du naturak egiten duena imitatzea eta, zehazki, hegaztien egiten dutena, gauza guztiei ateratzen baitiete probetxua.

**Zergatik da garrantzitsua birziklatzea?** Ez dagoelako beste aukerarik: naturako baliabideak mugatuak dira. Ekologiaren hiru arau ospetsuei (murriztu, berrerabili eta birziklatu) beste hiru erantsiko nizkieke kontsumitzailearentzat: gogoeta egin edo jabetu kontsumismoaren kontzeptua ez dagoela naturan; balioetan hezi, geure burua aldatu dadin; eta aldarrikatu, gauzak aldatu daitezzen.

**Batzuk birziklatzearen aurka daude, iruditzen baitzaie enpresa batzuek etekina ateratzen diotela lan horri.** Egunero egiten ditugun ekintzen artean, birziklatzea da modurik onena ingurumena zaintzeko. Baina dena ez da birziklatzea, beharrezkoa da aipatu ditudan ekologiaren arau guztiak abian ezartzea ere. Herritar gisa, arduraz kontsumitu behar dugu, zabor horri ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko. Normala da enpresa batzuek etekina ateratzea hondakin horiei; kritikagarria izango litzateke gehiegizko irabaziak aterako balituzte.

**Birziklatzen ez dutenek eman izan duten beste arrazoi bat da ikusi izan dituztela zaborra biltzen duten kamioiak edukiontzi bateko eta beste-ko hondakinak nahasten.** Birziklatze prozesuaren katea ez da perfektua eta

esan ere ez digute guztia egiten, baina horrek ez du esan nahi utzi egin behar zaiola birziklatzeari. Horregatik aldarrikatu behar da sumatzen dugun edozein irregularitasun.

**Birziklatzeak nola laguntzen du natura zaintzen?** Oinarritzkoa da natura kontserbatzeko. Ekonomia zirkularren Europako estrategiak zazpi helburu funtsezkoen artean jarri du. Natura, berez, birziklatzeko makina perfektua da, guk geuk ikasi eta aldatu behar dugu. Adibidez, zaborretara botatzen ditugun farmako askok uretan bukatzen dute. Ez birziklatzeak gure osasuna arriskuan jartzea du. Ongi egitera behartuta gaude eta informazioa eskatzera edozein zalantza sortzen zaigunean.

**Zer neurritan birziklatzen ditugu hondakinak?** Oraindik oso urruti dago hondakinen %100a birziklatzea. Europak oraintxe onartu berri du 2030. urterako ontzietatik sortzen diren hondakinen %80 birziklatu beharko direla eta hondakin guztien %70. Urruti gaude hori betetzetik. Beste neurri handinahi bat da 2025. urterako ezingo dela hondakinik eraman zaborregietara, arriskua izaten baitute kutsadura larriak eragiteko.

**Kontsumitzaileok ba al dakigu birziklatzen?** Askok aurreratu dugu eta orain ez dugu lehen adina huts egiten edukiontziak erabiltzean, baina besaulkiaren gizartean bizi gara: edukiontzia urruti dagoela esaten dugu eta nagikeria sartzen zaigu. Askok ere ardura handiagoz jokatu behar dugu eta guztion onerako dela jabetu. Zalantza txikiak sor daitezke eta horrexegatik indartu behar da heziketa.

**Jabetzen al gara zer gertatzen den guk sortzen dugun zaborrarekin?** Ez dut izan nahi katastrofista, baina utzi egin behar diogu natura horrela deuseztatzeari. Gaur egun ekonomia zirkularraz hitz egiten da, eta hori,

funtsean, natura imitatzea baino ez da, eta horrek lagundu egin diezaguke bizirik irauten. Sistema horrekin, zaborra baliabide bihurtzen da eta balio ekonomikoa ematen zaio. Naturan, bestalde, sortzen den edozein hondakin gaurko edo biharko organismo bizien zati izatera igarotzen da. Gure gorputzeko atomoen zati bat trilobiteetatik, dinosauroetatik, eta abarretatik pasatu dira aurrez. Hegaztien, adibidez, dena birziklatzen dute.

**Nola?** Adibide asko daude. Espezie batzuek habiak egiteko erabiltzen dituzte aztoreei erori zaizkien luma eta ileak (basoetako hegazti harrapari bat da). Zuhaitz belatza (Afrikan ematen du denborarik gehiena) zain egoten da beleak bere habia utz dezan hura berrerabiltzeko. Guk botatzen ditugun hondakinei ere probetxua ateratzen diete hegaztien, itsastxoriek zabortegetan adibidez edo txantxangorriek, zeinak zigarrokinak bildu eta beren habietan erabiltzen dituzten. Horretaz gain, hilotz bat mendian gelditzen denean, hegazti sarraskijaleek guztia-ri ateratzen diete probetxua, eta hori ikus daiteke birziklatzearen eta landidetzako ekonomiaren adibidea. Berrikuntzak gehiago imitatu behar luke natura. Ez da deus ere alferrik galtzen.

**Inon erabiltzen al dituzte hondakinak horietatik produktu deigarrien bat ateratzeko?** Enpresa batzuek, Ecoalf-ek esate baterako, sandaliak, bizkar zorroak eta kalitate handiko arropak egiteko erabiltzen dituzte hondakinak. Oso proiektu handia dute itsasotik plastikozko hondakinak bildu (itsasontzien sareak etabar) eta ehungintzako produktuak egiteko. Hondakinik egon ez dadin gogotik saiatzeari iturri paregabea da enplegu berdea sortzeko, ekodiseinuan lan egin behar da, eta hondakinak kalitatezko produktu bihurtzeko ere bai.